



NIPPON GASES ESPAÑA, S.L.U., OLABERRIA

Enpresaren identifikazioa eta helbidea

NIPPON GASES ESPAÑA, S.L.U.

nº1 errepidea, km 416





20212 -Olaberria (Gipuzkoa)

NIPPON GASES ESPAÑA, S.L.U. establezimendua (Olaberria, Gipuzkoa) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenen mende dago (substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen ditu dekretu horrek), eta 7. artikuluan xedatzen den jakinarazpena entregatu dio Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari, artikuluko horretako 1. apartatuan zehazten den edukiarekin, baita 10. artikuluko 1. apartatuan adierazten den segurtasun-txostena ere.

Establezimenduaren jarduera

Gas industrialen fabrikazioa

Istripu larria eragin dezaketen substantziak

Izena	H esaldiak	Piktogramak
Azetilenoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	
Oxigenoa	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea. Presiopeko gasa	
Propilenoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	
Nahasketa sukoiak	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	



Herritarrentzako alerta eta informazioa

Istripu larriren bat eragin lezakeen egoeraren bat gertatuz gero establezimenduan, eragindako herritarrei ohartaraziko zaie eta informazioa emango zaie.

Honako bitarteko hauek erabiliko dira herritarrek ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko abisuak, Babes Logistikorako Taldearen ibilgailuetako megafonia bidez. Normalean, megafoniaz egiten dira (megafonia finkoa edo mugikorra izan daiteke). Abisu horiei esker, biztanleek zuzenean jakingo dute zein diren berehala aplikatu behar dituzten segurtasun-neurriak.
- Hedabide sozialak (telefonía, faxa, posta elektronikoa, herri-irradiak, tokiko TV kateak).
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren sare sozialak (X sare soziala, Youtube...).
- 112 SOS Deiak app-aren bidez, herritarrek zuzenean komunikatu ahal izango dira Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin (112 SOS Deiak), 112 telefono zenbakira dei eginez, edo, ezin bada, gor-mutuek ahotsik gabeko sarbidea eta irisgarria izanez.
- Gainera, alderantziz, 112 SOS Deiak app-ak istripuaren berri emango du kaltetutako herritarren gailu mugikorren bidez, autobabeserako jarraibideak adierazita.

Azken ikuskapena

2022ko Martxoaren 14an egin zen azken *in situ* ikuskapena.

Aurrez eskatuta, azken *in situ* bisitaren eta ikuskatze-planaren datuak lor daitezke, hemen:

Industria Erregelamendu eta Segurtasun Zerbitzua

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
Donostia kalea 1
01010 Vitoria – Gasteiz

Informazio gehigarria

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona:



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Foronda kalea 41, La Torre eraikina
01010 Vitoria – Gasteiz